ETORKIZUNA ERAIKIZ THINK TANK

ETORKIZUNEKO LANARI BURUZKO EZTABAIDA TALDEA

IKERKETARI BURUZKO EGUNEROKOA # 2

LEHEN EZTABAIDA ZIKLOAREN EBALUAZIO DOKUMENTUA (2020-2021)

Etorkizuna Eraikiz Think Tankeko ikerketa egunerokoen helburua da Think Tank honen ikerketa sustatzea, ikertzaileei prozesua ulertzeko baliabideak eskainiz. Horretarako, Think Tankaren ibilbidearen mugarri nagusiak azaltzen dituzte, sortu diren gainerako dokumentuekin loturak ezarriz. Gainera, ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen eta beste dokumentuetan agertzen ez diren edukiak azaltzen dituzte. Think Tankaren diseinuan eta kudeaketan lan egiten duten pertsonen lana jasotzen dute nagusiki, eta Think Tankaren oinarri metodologikoak ikertzen lagun dezakete.

Edukia

Sarrera 2

Lehen eztabaida zikloaren (2020-2021) ebaluazioa 2

Etorkizuna Eraikiz Think Tank – Etorkizuneko lanaren eztabaida taldearen ebaluazioaren emaitzen dokumentua 4

Sarrera

Etorkizuna Eraikiz Think Tanka Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenean kokatzen den espazio bat da, elkarren artean ezagutza sortzeko espazioa, eta aukera ematen du Gipuzkoak dituen erronka handiez jabetzeko, haiek ulertzeko eta erronka horiei heltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen politikei lotutako ekosistemak hobetzeko prozesuak definitzeko, lankidetzazko gobernantzaren filosofiatik abiatuta.

Think Tankean garatzen den ezagutzaren gardentasuna eta hedapena eta jardueraren ikaskuntza sustatzeko, ekimen honek ahalegin handia egiten du ikus-entzunezko materiala eta dokumentuak sortzeko, eta horien bitartez jakin daiteke nola ari den garatzen prozesua eta prozesu horren ikaskuntza, emaitza eta inpaktu nagusiak. Material hori etengabe eguneratzen da, eta eskuragarri dago Etorkizuna Eraikiz Think Tankaren webgunean. Bertan, honako hauek aurki daitezke: Think Tankeko eztabaida taldeetako partaideen zerrenda, eztabaida taldeen hileko bileren memoriak, eztabaida taldeetako adituen hitzaldiak, adituen gogoetak laburbiltzen dituzten lan dokumentuak eta gaian adituak direnek egindako txostenak, hausnarketarako tresna gisa erabili direnak, eta eztabaida taldeek egindako txostenak, ikaskuntzak jasotzen dituztenak.

Gainera, Think Tanka egituratuta dagoen eztabaida taldeen bileren eta lan dokumentuen memorien osagarri gisa, ikerketa egunkariak garatzen dira. Horiek ere web orrian daude, eta Think Tank honen ikerketa sustatzea dute helburu, ikertzaileei prozesua ulertzeko baliabideak eskainiz. Horretarako, Think Tankaren ibilbidearen mugarri nagusiak azaltzen dituzte, sortu diren gainerako dokumentuekin loturak ezarriz. Gainera, ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen eta beste dokumentuetan agertzen ez diren edukiak azaltzen dituzte. Think Tankaren diseinuan eta kudeaketan lan egiten duten pertsonen lana jasotzen dute nagusiki, eta Think Tankaren oinarri metodologikoak ikertzen lagun dezakete.

Eguneroko honek lehenengo eztabaida zikloari (2020-2021) dagokion Etorkizuneko lana taldearen ebaluazio txostena jasotzen du. Ziklo hori deskribatuta dago taldearen *# 1 Ikerketa egunerokoan*.

Lehen eztabaida zikloaren (2020-2021) ebaluazioa

#1 ikerketa egunerokoan zehazten den bezala, Etorkizuneko lanari buruzko eztabaida taldeak, gainerako taldeek bezala, 2020ko maiatzetik 2021eko apirila/maiatzera bitartean egindako jardueraren ebaluazioa egin zuen.

Ebaluazioa lehenengo zikloaren azken bileran egin zen, 2021eko apirilaren 15ean (*#8 bileraren memorian* zehaztuta). Taldeko parte-hartzaileek prozesua ebaluatzeko galdetegi bat bete zuten, eta, ondoren, beren balorazio orokorra taldearekin partekatu zuten. Galdetegiaren emaitzak ebaluazio dokumentu batean jaso ziren. Dokumentu hori eguneroko honetan erantsi da, eta bertan jasotzen dira Think Tankaren taldearen jarduerak hartzen dituen elementu ebaluatuei parte-hartzaileek emandako erantzunak, galdera irekien eta enuntziatuen bidez; parte-hartzaileek galdera eta enuntziatu horiei buruzko adostasun-maila adierazi behar zuten. Hauek dira ebaluatutako eta dokumentuan jasotako elementuak:

- Helburuen betetze maila (ezagutza elkarrekin sortzea, GFAren politiken ekosisteman etorkizunean eragiteko baldintzak sortzea, GFAren politiken ekosisteman gaur egun duen eragina, eta ezarritako helburua betetzea).
- Saioen antolaketa eta garapena (taldea osatzea, gonbidatutako adituen egokitasuna, saioak antolatzea, adituen eta parte-hartzaileen arteko denboraren erabilera, saioen maiztasuna, saioen iraupena, eta saioen arteko lan karga)
- Ekosisteman duen eragina (taldean konfiantza sortzen laguntzea, arazoari buruzko ikuspegi partekatua garatzen laguntzea, taldeko kideen inplikazio maila; GFAko eragileen arteko lankidetza eta beren politiken ekosistema)
- Web orria (web orria ezagutzea, web orria erabiltzeko erraztasuna, web orriaren egokitasuna prozesuari buruzko informazioa partekatzeko)
- Sortutako ezagutza produktuak (produktuen egokitasuna taldeko lana beste eremu batzuetara zabaltzeko; produktuen egokitasuna taldearen eztabaida etorkizunean indartzeko)
- Ebaluazio orokorra (parte hartzeko hasierako arrazoia eta parte hartzeko egungo arrazoia)
- Hurrengo faserako proposamenak

Dokumentuan jasotako emaitzak eta gainerako eztabaida taldeen (Kultura politiko berria, Berreskuratze berdea eta Ongizate estatuaren etorkizunak taldeak) emaitzak Think Tankeko koordinazio taldeetan aztertu eta landu ziren ondoren. Hortik abiatuta, Think Tankeko talde arduradunak hobekuntza proposamenak egin zituen, lau eztabaida taldeen jarduera orokorrera bideratutako bigarren zikloari begira.

Hona hemen eztabaida taldearen ebaluazio dokumentua. [1]

[1] Dokumentuaren zenbakia ez dator bat jatorrizkoarekin dokumentu honetan txertatzerakoan.

Etorkizuna Eraikiz Think Tank – Etorkizuneko lanari buruzko eztabaida taldearen ebaluazioaren emaitzen dokumentua

ETORKIZUNA ERAIKIZ THINK TANK

EBALUAZIO PROZESUA

2020ko maiatza – 2021eko maiatza

ETORKIZUNEKO LANA

Edukiak


1. IDENTIFIKATZAILEAK 6
2. HELBURUEN BETETZE MAILA 6
3. SAIOAK ETA PROZESUAK ANTOLATZEA ETA GARATZEA 8
4. INPAKTUA EKOSISTEMAN 11
5. WEB ORRIA 12
6. SORTUTAKO EZAGUTZA PRODUKTUAK 13
7. BALORAZIO OROKORRA 14
8. HURRENGO FASERAKO PROPOSAMENAK 15

1. IDENTIFIKATZAILEAK





Gipuzkoako Foru Aldundiz kanpokoak → 11 / Gipuzkoako Foru Aldundikoak → 3
Parte hartzaileak guztira: 14

Generoa:




2. HELBURUEN BETETZE MAILA






Jarritako helburua bete dugu



Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken ekosisteman eragiten ari gara jada



Partaideen hausnarketak helburuen betetze mailarekiko

⇨Proiektu esperimentaletan, lanaren zentzua eraldatuko duen prozesu emankor bat egin eta emaitzak denbora laburrean izatea, oso zaila da. Baina dena da aurrerapausoa.

⇨Deliberazio lantaldetik atera diren ideiak kontutan izanik, proiektu esperimentalak aurrera eramango direnez, eta hauek garatu ondoren, eskalatuko direnez eta lurraldeko politiketan kontutan izango direnez, jakintza eta ko-sorkuntza batean parte hartu dugula pentsatzen dut. Honetaz gain, proiektu esperimentalaren bitartez sortuko den jakintza eta esperientziek Aldundiko politikak ere nolabait eragingo dituzte.

⇨Orokorrean esango nuke helburu nagusiak bete direla, nahiz eta batzuetan ildoa jarraitzea eta helburu horiek ez bistaz galtzea zaila egin zait/zaigu. Hauxe da, dispertsio maila altua izan da batez ere lehenengo saioetan.

⇨Egiten ari garenarekin lerrokatua dago baina inportanteena: etorkizunari begira pauso berri bat ematen ari gara (ezagutza/esperimentazioa elkarrekin) ekiteko.

⇨Ko-sortze prozesuan eta gobernantza kolaboratiboan erabat oinarrituta.

⇨ Lehenengo baieztapena azpimarratuko nuke, gainerako baieztapenak ere modu positiboan baloratzen baditut ere, nekezagoak dira gauzatzen eta ikusiko dugu ea helburuetara gerturatu ote garen edo ea Aldundiaren politiketan eragiteko gaitasunik izan ote dugun.

⇨Deliberazio taldea oso ariketa beharrezkoa eta aberasgarria izan da, eta aurreneko pausu bezala begiratuta oso arrakastatsua deritzot. Hala eta guztiz ere, jarraipena eta hobekuntza beharko lituzke benetan eraginkorra eta eraldatzailea izateko. Orain arteko diseinuaren ahulune nabarmenena benetako jakinduria partekatu eta ko-sortzeko ez dela egokia deritzot. Bilera bakoitzaren aurretik partaideen arteko komunikazioa sustatuko nuke nik, norbaitek taldeari informazioa helarazteko bideak sortu.

⇨Nire ustez, emaitza zertxobait orokorregia iruditzen zait; nazioarteko kontrasterik gabekoa.

⇨Lan ona egin da, baina hasiera besterik ez da. Hausnarketa eta diseinua garrantzitsuak dira. Baina, ezarpenik ezean, baliorik ez da sortzen.

⇨Ekarpenen bidez proiektu esperimentalak etorkizuna markatuko du; eta, nola ez, egungo proiektu esperimentalen politikak markatzen ari da.

⇨Gaizki gogoratzen ez badut, etorkizuneko lanean pentsatzeaz gain, lan honen (edo, hobeto esanda, lan-metodoaren) helburua enpresen eta kolaboratzaileen lan-etorkizunari laguntzeko proposamen praktiko bat sortzea zen. Gaurko aurkezpena ikusita, lanaren zati praktiko hori lortutzat jotzen dut.


⇨Ezagutza partekatzen dugun heinean (horixe egin dugu, batez ere), besteengan ezagutza sortzeaz gain, jakintza sortzeko testuinguru aberasgarria eta dinamikoa sortzen da (ideia/esperientzia ekaitza). Ez da neurgarria, baina esango nuke ezagutza biderkatzen dela: zerbait esponentziala.

⇨Nire ustez, egindako saioetatik ekarpen interesgarriak atera dira, une honetatik bertatik erabilgarriak izan daitezkeenak, proiektu esperimentalaren emaitzen zain egon gabe.


⇨Esperimentalki abian jartzeko proiektu zehatz bat definitzeko helburua bete ahal izan da.

3. SAIOEN ETA PROZESUAREN ANTOLAKETA ETA GARAPENA


Saioetan parte hartu duen taldearen osaketa egokia izan da



Saioetara gonbidatu diren adituak egokiak izan dira



Saioen antolaketa (deialdi, logistika, material, hizkuntzen erabilera eta abar) egokia izan da



Partaideen hausnarketa taldea, adituak eta saioen antolaketarekiko:

⇨Saioak oso partizipatiboak izan dira, hizlari oso interesgarriekin, hasiera batean hausnarketa zaila zuten eta zehatzak ez ziren gaiei buruz.

⇨Ulertzekoa da presentzialki ez egotearen arrazoiak, baina horrek eraginkortasuna kendu dio prozesuari.

⇨Aditu batzuei kostatu egin zait segitzea. Ez hizkuntzagatik, baizik eta azalpenaren ikuspegiagatik. Antolaketari dagokionez, eta uztartzeari dagokionez, nahiago izango nuke bilerak 16:00etatik 18:00etara egitea.

⇨Parte-hartzaileen maila bikaina da, zalantzarik gabe, eta antolakuntza bikaina izan da (bai aurretiazkoa, bai saio bera, baita saio-ostekoa ere). Presentzialki izango balitz, agian saioei probetxu gehiago aterako genieke. Baina, nolanahi ere, oso balorazio ona egiten dut.

⇨ Gazteen partaidetza faltan sumatu dut, izan ere, etorkizuna baitira. Baita ere sindikatuena. Antolaketari dagokionez, zaila da alderdi teorikoenen jarraipena online formatuan egitea, baina badakit zer egoeratan gauden.

⇨Oso ondo antolatuta egon da.

⇨Saioak ondo zuzendu direla uste dut.

⇨Nahiz eta pandemia batean egon, prozesuarekin jarraitzeko modua bilatu da.

⇨Dena egoki.


⇨ Gaiak duen konplexutasuna eta aipatu den bezala, lan ildo desberdinen arteko interkonexioa edo lotura [kontuan hartuz], uste dut taldearen osaketak beharrezkoa den jakituria eta bestalde aniztasuna bermatu duela. Parte-hartze kopurua kontutan izanik eta telematikoki izan arren lan taldearen dinamika ongi eraman dela esango nuke.


⇨Ideien partekatze aukera gehiago eta zabalagoa faltan bota dut.


⇨Taldeen osaketa egokia dela deritzodan arren, agian ahots edo profil ezberdinak (kritikoagoak agian sistemarekin) faltan bota ditut. Kontziente naiz horrek duen arriskuaz ere, eta horregatik egoki gisa baloratzen dut taldeen osaera. Adituak oso egokiak iruditu zaizkit. Saioen antolaketa oso ona. Gaurkoan euskararen presentzia eskertu eta azpimarratzekoa.


⇨Zenbait eragile sozialen eta "gazteriaren" falta sumatu dut.

⇨Telematikoa ez da gai hauek hausnartzeko modurik egokiena.









Partaideen hausnarketa denboren kudeaketa eta lan-kargarekiko:

⇨Adituen parte hartzea bikaina izan da, eta oso garrantzitsua.

⇨Batzuetan taldean lan egiteko denbora eskasa izan dela iruditu zait.

⇨Dena egoki.

⇨ Uste dut maiztasuna, iraupena etab. egokiak izan direla orokorrean. Batzuetan deliberazioak egiteko denbora oso laburra izan dugu, edo saio jakinen batean abstrakzio maila altua zenez gaia edo erantzunak zehaztea gehiago kostatu zaizkigu.

⇨Lan indibidual gehiago beharko litzake saio bakoitza ondo prestatzeko eta eztabaida aberatsagoa izateko.

⇨Ados nago.

⇨Antolaketa egokia.

⇨Telematikoki ondo, nahiz eta fisikoki hobeto. Baina pandemiak ez digu utzi.

⇨Oreka eraginkorra mantendu egin da.

⇨Kanpo adituak egon direnetan, 19:00ak oso azkar iristen ziren. Denbora gehiago egoteko ere gogoa ematen zuen.


⇨ Bi orduko saioak eramangarriak dira, eta adituen eta parte hartzaileen arteko denboraren banaketa orekatua da. Horrelako prozesu bat 8 hilabetetako epean aurrera eramateko bere denbora eskaini behar izan diogu.


⇨Orduan hasi eta amaitzea ezinbestekoa izan da, batzuetan, hala ere, gehiago egiteko gogoz gelditu naiz. Aipatutako puntu guztiekin oso ados nago.


⇨ Uste dut saioz saio hobetzen joan naizela. Hasieran, denbora gutxi genuen taldeentzako, baina hori konponduz joan da.


⇨Uste dut dena oso egokia izan dela.

4. EKOSISTEMAN ERAGINA









Partaideen hausnarketa ekosisteman izandako eraginarekiko:

⇨Aurrez nabarmendutakoarekin ados nago.

⇨Saioek ezagutzen ez genituen beste pertsona batzuekin elkarreragiteko ahalmena eman digute, eta hori oso aberasgarria izan da. Hala ere, ez dut aukerarik izan pertsona batzuekin lan egiteko, eta uste dut, ona izango litzatekeela pertsona horiekin ere lan egitea.

⇨Galdera guztiak kalifikazio handienarekin erantzun nahiko nituzke, baina ez naiz hori egiteko gai ikusten. Izan ere, nire bizitza pertsonala dela eta, pare bat saio gehiago beharko nituzke. Hala eta guztiz ere, uste dut parte hartzaileen konpromisoa, oro har, oso altua izan dela.

⇨Plazerra izan da hausnarketak hain modu irekian partekatzea. Elkarren irizpideak besteei helaraztea eta batzuen eta besteen iritzien artean bateragarritasuna ikustean lana bideratzen laguntzen du.

⇨Oinarrizkoa da esku hartzea lan taldeetan.

⇨Oso gustura sentitu naiz parte hartu dudan taldeetan, nahiz eta jende desberdina izan eta profil aniztasun handia egon.

⇨Saioak asebetetzaileak izan dira. Elkarrekin partekatu ditugu.

⇨Egokiak iruditu zaizkit, ez dut ezer berezirik goraipatzeko.

⇨Dudarik gabe ikasketa eta hausnarketa asko bideratu dira solasaldietan eta hori denontzako balio handiko ikasketa izan da.

⇨Hobekuntzarako espazioa izan arren saioak oso ondo joan dira.


⇨Talde dinamikak egokiak izan dira baina uste dut Pandemiak asko baldintzatu gaituela. Dena den, oztopoak oztopo, oso balorazio positiboa egiten dut.


⇨Taldean inplikazioa ikusi dut, baita konfiantza ere.


⇨Dinamika eta metodologia baliagarriak: NOLA.

⇨Aldunditik kanpokoak direnei, bakarka galdetuko nieke ea nola sentitu diren. Beraien feedback zuzena jaso. gertutasun hori agertzea sustapen, berrikuntza edo estrategikoen zuzendaritzatik. Kide bakoitzari hurbilketa bat, gai hauei buruz hitz eginez.

5. WEB ORRIALDEA







Partaideen hausnarketa web orrialdearekiko:

⇨Ez dugu plataforma moduan erabili. Nire ustean behintzat.

⇨Nire ustez ez du ondo islatzen orain arte egindakoa

⇨Web orria ondo dago.

⇨Web orria ezagutzen dut. Nahiz eta ez sakonegi ezagutu tresna egokia dela iruditzen zait.

⇨Ez dut web orrialdea asko erabili.


⇨Ez dakit zein webgunetaz hitz egiten den.


⇨Ezagutzen dut, erabili dut eta erraz erabiltzekoa iruditzen zait.

⇨Egia esanda, ez dut erabiltzeko aukera askorik izan. Baina uste dut informazioa partekatzeko leku egokian dagoen web orria dela.

6. SORTUTAKO JAKINTZA PRODUKTUAK

Saioetako memoria eta lan-dokumentuez gain, talde honetan sortutako jakintza produktua proiektu esperimental baten diseinua izan da.





Partaideen hausnarketa sortutako jakintza produktuekiko:

⇨Sortutako dokumentu guztiak egituratu eta ondo jaso beharko genituzke.

⇨Zalantzak ditut ea hurrengoak bere gain hartuko duten emaitza hau, baldin eta proiektuan eza badute parte hartu.

⇨Produktu "bukatuak" ezagutzeke ondo lerrokatuak dirudite.

⇨Prozesu aproposa beste batzuetara zabaltzeko.

⇨Egokia izatea gustatuko litzaidake.

⇨Jakintza asko kanpoan geratu denaren sentsazioa dut.

⇨Sortutako dokumentazioa eta lanketa uste dut lagungarriak izango direla.

⇨Dudarik gabe abiapuntu bat da. Hala ere, nazioarteko esperientzietan oinarrituta dauden ekintza konkretuak behar ditugu.

⇨Estrapolatu daitekeen guztia, ongi etorria da.

⇨Zaila egingo litzaidake zein esparrutara zabaldu nahi denaren arabera: dokumentu zailak diren edo sinpleagoak izan behar duten. Adibidez, ikasleen artean banatzeko…


⇨Proiektua idaztea egokia iruditzen zait, baina aitortu behar dut gaurko aurkezpena jarraitzea kostatu zaidala. Oso teorikoa zen.

⇨Proiektu esperimental baten diseinua ezinbesteko jauzia izango da orain arte egindakoari balioa emateko.

⇨Ez dut argi zein den "proiektu esperimentalaren diseinua", eta, beraz, ezin dut baloratu planteatzen diren bi helburuetarako egokia den.

⇨Lanean jarraitzeko interesgarria.

7. BALORAZIO OROKORRA



Beste arrazoi bat:


⇨Gipuzkoarentzako ona delako.

⇨Pertsonetan oinarritutako gure enpresa-ereduagatik parte hartzeko eskatu zitzaidan. Ilusio handia egin zidan egungo lan-ingurunea aldatzen lagundu ahal izatea.

⇨Hasiera batean, etorkizuneko aldaketa posible batean laguntzeko parte hartu nahi izan nuen. Hala ere, oso anbizio handikoa zela uste nuenez, talde-ikaskuntzaren bila nenbilela esango nuke.

⇨ Aukera aparta iruditu zitzaidan Gipuzkoako pertsona esanguratsuekin talde-ikaskuntzan aritzeko. Gainera, ilusioa ematen zidan guri dagokigun arloan gizarteari zerbait eskaintzea, etorkizuneko lanaren gainean, hain zuzen ere.

⇨Aurreko Think Tank batean esperientzia oso ona izan zen, esparru desberdinetako beste pertsona batzuekin esperientziak eta ezagutza partekatu bainituen.



Beste arrazoi bat:

⇨Ados nago.

⇨Orain bai uste dudala etorkizuneko aldaketaren hazian parte hartu dudala.

⇨Batez ere, transformazio-prozesu bat izatea espero dut.

8. HURRENGO FASERAKO PROPOSAMENAK

⇨Sortutako dokumentu guztiak egituratu eta ondo jaso beharko genituzke.

⇨Esperimentazioa gauzatu (ikasi) politika berriak garatzeko (ekin).

⇨ Hurrengo faseen eboluzioaren berri izatea eskertuko nuke eta Talde honekin nolabaiteko harremana bizirik mantentzeko ahaleginen bat egingo bazenute baita ere. Eskerrik asko!

⇨Aurreneko pauso bikain bat izan da, egin dezagun "Science for Policy"-arekiko apustu ausartago bat.

⇨Saioen helburu argiak, eta gai zehatzak jorratzea.

⇨Beharrezkoa da gaur egungo errealitatea aldatzeko prozesu hori eragitea, dagoeneko hemen dagoen etorkizunera egokitzeko

⇨Agian, pertsonen konpromisoa. Saio batean edo bitan bakarrik parte hartu duen jendea egon da.

⇨Proiektu esperimentala denez, proiektu pilotu bera elikatu eta kontrastatzeko balio dezake.

⇨Enpresaren eta etorkizuneko gizartearen arteko harremanak: enpresak gizartearen garapenean eragina duten gizarte-eragile gisa ikusi behar dira.

⇨Uste dut formatua eta dinamika egokiak izan direla. Presentziala izateak zenbait ekarpen positibo ekarriko lituzke.